

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

□ FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa ondo eta ganoraz funtziona dezan zenbait aktibo behar ditugu, haiei esker lortzen baitugu balorezko proposamena garatzea, bezeroengana iristea, haiekiko harremana mantentzea eta diru-sarrerak lortzea. Halaber, aktibo hauek hainbat taldetan sailkatzen dira:

● BALIABIDE FISIKOAK

Baliabide hauek behar ditugu:

- **Instalazioak**, Meachine produktua ekoitzi ahal izateko lekuak: Fabrikak
- **Makinak**, Metachine ekoitzi ahal izateko
- **Bulegoak**, dena ondo dabilen kontrolatzen duten langileek leku bat izateko lan egiteko
- **Sistema informatikoak**, bezeroek Meachine edozein lekutatik erosi ahal izateko web-orriaren bidez
- **Salmentarako-puntuak**, bezeroek gure makina pertsonalki erosi nahi izanez gero behar diren lekuak edo dendak: El Corte Ingles, Media Markt...
- **Ibilgailuak eta banaketa-sarea**, gure produktua saltzen duten dendetara eramateko eta web-gunetik erosten duten bezeroen etxeetara zuzenean eramateko

● BALIABIDE INTELEKTUALAK

Beharrezko ditugun baliabide ukiezinak:

- **Marka**: Gure marka dela eta desberdindu ahal izango gara lehiakideengatik eta aukera izango dugu prezioak pixka bat igotzeko.
- **Patentea eta egile-eskubideak**: Gure produktua “Meachine” babesteko behar ditugu beste enpresa batzuek hura kopia ahal ez izateko denbora periodo batean, beraz, hura erabiltzeko eskusibotasuna izateko.

- **GIZA-BALIABIDEAK**

Gure enpresan lan egiten duten pertsonak osatzen dituztenak dira. Hainbat mota daude, baina hauek dira Oluss-en garrantzitsuenak direnak:

- **EZAGUTZA ETA SORMENA:** Funtsezkoa da ezagutza-maila eta sormen altua duten langileak izatea gure enpresan lan egiten, Meachine makina fabrikatzeko eta etengabe hobetzeko prozesuak pentsatu eta egin ahal ditzaten, bezeroen esperientzia gure produktuarekin hobetuz izateko
- **GAITASUN KOMERTZIALA:** Ezinbestekoa da ere gaitasun komertziala Oluss-erentzako, hari esker gure produktuaren kantitate askoz handiagoak saldu ahal izango ditugulako, eta gure merkatu-kuota askoz gehiago handitu

- **FINANTZA-BALIABIDEAK**

Enpresa bat hasteko eta mantentzeko ezinbestekoak dira finantza-baliabideak:

- **ESKUDIRUA:** Norberak (pertsona, familia zein enpresa) berehala erabil dezakeen dirua, zeinak txanponak, billeteak, txekuek eta bestelako bitarteko elektronikoz lortutakoak osatzen duten. Hari esker gure enpresa zabaltzeko aukerak handitu egiten dira.
- **KREDITU-LINEAK:** Beharrezkoak ditugu Meachine ekoizteko behar diren materialak erosteko (txipak, burdina...), langileen soldatak ordaintzeko (kamioien gidariak, dendariak, frabrikako langileak...), bestelako erosketak egiteko (beste lokal bat, publizitate-kanpainak...) eta negozioa zabaltzeko (beste herrialde batzuetara bidali ahal izateko produktua eta bertan saltzeko...)

- **FUNTSEZKO BALIABIDEAK APLIKATZEKO MODUAK**

Gure enpresa garatzeko beharrezkoak ditugun funtsezko-baliabideak:

- **EXTERNALIZAZIOA ETA KOSTUAK MURRIZTEA:** Kostuak murriztea ezinbestekoa da, gure helburua ahalik eta diru-sarrera handiagoak lortzea baita. Horretarako externalizazioa egingo dugu beste enpresa bateri erosiz guretzat beharrezkoak diren mikrotxipak, oso garesti aterako litzaigukelako guk haiek ekoiztea.
- **HOBETZEKO AUKERA:** Gure produktua etengabe hobetzea beharrezkoa dugu besteengandik etengabe desberdintzeko eta gorenean mantendu ahal izateko. Horretarako langile batzuk ditugu, etengabe pentsatzen ari direnak hobetzeko metodoak eta formulak, bezeroen esanetan oinarrituta
- **IRAUNKORTASUNA:** Gure funtsezko baliabideak nahiko denbora irauteko eginda daude, baina egia da dena delakoagatik egunen batean funtzionatzeari utzi ahal diotela, nahiz eta oso arraroa izan, ezinezkoa edo oso zaila baita zerbait aurkitzea betirako irauten duena.